

2. BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak nortzuk diren zehazteko, kanpo eta barne ingurunearen azterketa bat egin dugu, bertan gure enpresak izango dituen aukera, mehatxu, indargune eta ahulezia posibleak zeintzuk izango diren aztertu ditugularik. Hurrengo taulan gure enpresaren AMIA matrizea zein den zehazten dugu:

<p><u>Aukerak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Dendetan astero ateratzen dituztela kolekzio berriak 	<p><u>Ahuleziak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Beharrezko diru-sarrerak ez lortzea
<p><u>Indarguneak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Jendea ezin du zerbitzu bera aurkitu beste aplikazio batean 	<p><u>Mehatxuak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Antzeko aplikazioak sortzen dituzten pertsonak


Azterketa hau egin ostean, gure bezeroak nortzuk izango diren zehaztu dugu. Orokorrean, edonork erabili dezake gure aplikazioa, baina gure ustetan izango ditugun bezero gehienek ezaugarriak hurrengoak dira; arropak konbinatzeko arazoak dituztenak edo moda gogoko ez dutenak, baina ondo eta estiloarekin jantzita joan nahi dutenak. Arropa konbinazioak egiteko denborarik ez daukatenak, familia edo lan asko egiten dutelako. Moda asko gustatzen zaienak eta beraien look-ei buelta bat eman eta erabilera ezberdinak esperimentatu nahi dituzten pertsonak, besteak beste. Horretaz gain, adinaren sailkapen bat egiten baldin badugu, 18-30 urte bitarteko gazteak interes gehiago izango dute gure app-a erabiltzeko, gizarteak presio bat eragiten duelako beraiengan eta besteen iritziak inportantzia asko daukako.

Merkatuari dagokionez, merkatu masibo batera zuzentzen gara, orokorrean denek dituztelako antzeko behar eta nahiak.

Gaur egun, ez dago zure arropekin outfitak sortzeko zerbitzua eskaintzen duen aplikaziorik. Baina euki dezakegu zeharkako lehiakideak, beste enpresa batzuk, adibidez arropa marken enpresek beraien aplikazioan arropa hori konbinatzeko aukerak erakusten dituzte.

Outfit onak eta landuak egin nahi dituzten pertsonentzat izango da batez ere, batzuetan bakoitzaren estilo propioa aurkitzea zaila da eta aurkitzen doan bitartean arropa konbinatzeko ere zailtasunak ditu, horregatik gure aplikazioarekin lagundu egiten diegu.

Aplikazioa doakoa da; beraz, bezeroei beraien arropa aplikazioan sartu eta bertan gordetzea eskaintzen diegu, outfitak dohain egiteko. Gure bezeroek, premium harpidetza ordaintzen dutenean, aukera berriak izango dituzte, hala nola, hainbat dendeetako luxuzko arropa erostea eta aplikazioan sartzen zarenean iragarkirik ez izatea. Premium izateko hilean 2,99 euro ordaindu beharko dute.



Gure bezeroen %40a Euskal Herrikoa da batez ere guk Euskal Herrikoak garelako, gero %20 Madrilekoak dira Espainiako hiriburua delako orduan erreza da aplikazioa hedatzea. Baita ere beste %20 bat Andaluziakoa da baita ere hainbat influencer hangoak direlako eta gure aplikazioaren publizitatea egiten dute, horrekin batera gure bezeroen %10a Kataluniakoa da Bartzelona ere beste hiri garrantzitsu bat denez hainbat jende famatu bizi da eta gure aplikazioaren publizitatea baita ere egiten dute. Azkenik, beste %10a Espainiako beste probintzietan banatuta dago.